

Bizitegik Homeless Film Festivalaren zazpigarren ekitaldia antolatu du Bilbon

- Euskadin erreferentzia den gizarte zinema eta antzerki jaialdiak publiko guztietara zuzendutako programazioa aurkeztuko du Bilboko Bizkaia Aretoan azaroaren 23 eta 24an.
- Publikoak Susan Bejar-en Distancias film laburraz (2021eko Goya eta Oscar sarietako *shortlist*-ean aurreaukeratua izan zena) edo Ibarrekolanda BHIko Arte Eszenikoen ikasleek egindako *Zuen aulki hutsak gure noraeza* antzezlanaren estreinaldiaz gozatu ahal izango du.

Homeless Film Festival jaialdiaren zazpigarren edizioa azaroaren 23an eta 24an izango da Bilboko Bizkaia Aretoan. Beste urte batez Bizitegik antolatutako jaialdiak proposamen erakargarri bat prestatu du, azken urte hauetan egindako lanekin berritua. Beraz, antolatzaileek zinema eta antzerkia maite duten pertsona guztiak jaialdira hurbiltzera animatzen dituzte.

Gizarte gaiak lantzen dituen zinema eta antzerki jaialdi honek arreta berezia jartzen du etxerik gabeko gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonengan.

BBKren, *Santurzine* jaialdiaren, Euskal Herriko Unibertsitatearen, Deustuko Unibertsitatearen, eta ikastola eta ikastetxeen (Begoñazpi Ikastola, Artxandape Ikastola, IES Ibarrekolanda BHI, IES Ondarroa BHI, IES Rekalde BHI) lankidetzaren duen ekimena da.

Beste urte batez, Homeless Film Festival Euskadiko erreferentziatzeko gizarte zinema eta antzerki jaialdia izango da, eta honen gaineko xehetasuna <https://homelessfestival.org/> jaialdian jarraitu ahal izango dira.

Antzerkia protagonista lehen egunean

Azaroaren 23ko jardunaldia bere osotasunean antzerkira bideratua egongo da. Bizitegiko antzerki taldeetako bat, *Kuskurrun*, izango da jaialdiari hasiera emateko ardua izango duena, beste urte batez Clotilde Perezen zuzendaritzapean "*Cuando no hace falta decir nada... más*", antzezlanaren aurkeztuko dutelarik.

Ondoren, edizio honetako une berezietako bat bizitzeko aukera egongo da, Ibarrekolanda BHIko Arte Eszenikoko Batxilergoko ikasleek "*Zuen aulki hutsak gure noraeza*" antzezlanaren

aurkeztuko baitute. Igor Martin de Vidalesek zuzendutako lanak emakume etxegabeengan jartzen du arreta, eta esperientzia errealetan oinarritutako kontakizun bat aurkezten du.

Arratsaldean *Zenbatu* antzerki konpainiak egingo du bere agerpena, urtero lez jaialdiarekin duen zitarekin bat eginez. 2022ko ekitaldirako Ivan Iparraguirrek gidatutako taldeak “Si me das a elegir” antzezlanana prestatu du. Lehen egun honi bukaera emateko, Ibarrekolanda BHIko ikasleek berriz ere “Zuen aulki hutsak gure noraeza” lana antzeztuko dute.

Zinema bigarren jardunaldiko protagonista

Azaroaren 24rako, antolakuntzak zineman zentratuko den jardunaldi bat prestatu du, antzerkiari ere toki txiki bat egingo zaion arren. Goizeko lehen orduan *Santurzine* jaialdiaren *Kalean* atalean aukeratutako laburmetraien, Bizitegin ekoiztutakoen eta sekzio ofizialaren proiektzioa eskainiko da. Era berean, goizean ere ikastetxeetako ikasleek (Arxandape Ikastola, Begoñazpi Ikastola, IES Rekalde BHI, IES Ibarrekolanda BHI, IES Ondarroa BHI) egindako lan finalistak proiektatuko dira. Goizeko paseari bukaera emateko *Zenbatu* konpainiak berriz ere “Si me das a elegir” antzeztuko du.

Arratsaldean, 19:00tatik aurrera berriz ere *Santurzine* jaialdiaren *Kalean* atalean aukeratutako eta Bizitegin ekoiztutakoen eta sekzio ofizialeko lanen proiektzioa eskainiko da. Arratsaldeko saio hau Xabier Madariaga kazetariak gidatuko du, eta bertan ere proiektatuko dira Unibertsitateko ikasleek (UPV/EHUko Gizarte Zientzia eta Komunikazioko eta Bilboko Hezkuntza Fakultateak eta Deustuko unibertsitateko Hezkuntza eta Kirol Fakultatea) egindako lanak.

Horrez gain, jaialdiaren sekzio ofizialeko *Besarkada Saria* emango da, eta sekzio ofizial honen baitan publikoak edizio honetako plater nagusi batez gozatu ahal izango du, Susan Bejarrek zuzendutako *Distancias* film laburra alegia, 2021eko Goya eta Oscar sarietako *shortlist*-ean aurre-aukeratua izan zena.